

## EDITORIALA

### Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

2004ko urriaren 28an, Koldo Mitxelena kulturgunean, *UZTARO* aldizkariaren 50. zenbakia aitzakia harturik 14 urtez egindako lana gogorarazi nahi izan genuen. Aitzpea Leizaolak, gaur egungo UEUko lehendakariak, sarrera-hitza eta aurkezpena egin zituen. Ondotik, nik neuk *UZTARO*ren lehen 50 zenbakietan erredakzio-kontseilutik bizi izandakoaren oroitzapenak laburbilduz goraipamena egin nuen. Amaitzeko Iñigo Lamarka Arartekoak eginbide duen proiektu sakona bezain mardula aipatu zigun. Baita hitza eman ere, *UZTARO*ren ondoko zenbakirako argitaratzeko prest igorriko zigula. 51. zenbakiaren editoriala hastean, bada, bizi izan genuen arratsaldearen lekuko, nire hitzaldia ekarriko dut hona, gero artikuluen ohiko aurkezpenarekin jarraitzeko.

“Arratsaldeon, eta ongi etorri, hemen bildu zareten guztioi!

Duela 14 urte UEUK bere ikastaldietan sortzen ziren **giza eta gizarte-zientzien** alorreko lan idatzi laburrak, hots, artikulua, argitaratzeko premia planteatu zuen bere barne egituraren goi biltzar batean. Izan ere, urtez urte, lan idatzi gehiago aurkezten baitzen hala udako nola neguko bere ikastaldietan baina egileek zailtasunak edo erabateko ezintasunak zituzten argitaratzeko orduan. Ez zegoen literatura unibertsitario eta zientifikoa argitaratzeko prest zegoen euskal aldizkariarik. Gehienara egile bakar batzuek lortzen zuten euren lanen formatua dibulgazio neurrietara eramanez, han-hemen, zenbait artikulua argitara ematea.

UEU, Donibane Lohizunen abian jarri zenetik, hainbat urtez, goi-mailako euskal irakasleen prestakuntza egiten eta liburu unibertsitario eta zientifikoak argitaratzen ia bakarra izan zen, ziur asko, hala erakundeek nola argitaletxe komertzialek eginkizun horietan inbertitzeari errentagarritasunik ikusten ez ziotelako, baina literatura mota hori sortzeari zentzurik eta etorkizunik ikusten ez ziotelako ere izan zitekeen. Gero, pixkaka, Euskal Herriko unibertsitateetan euskal irakaskuntzak ofizialdu ahala, erakundeak goi-mailako irakasleak euskarari trebatzeko jardunaldiak, urte sabatikoak eta abar, diruz laguntzen hasi ziren, baina, argitalpen unibertsitario eta zientifikoak egiteko, arteka-artekako planifikazio gabeko dirulaguntza bakar batzuk besterik ez zituzten ematen. Gehiago dena, erakundeen konfiantzazko zen pertsona ezagun baten errekomenazioz beste inolako kriteriorik jarraituz etortzen baitzitaion horrelako estrarik zetorkionean norbaiti. Beranduxeago EHU bere argitalpen programazioan euskarazko liburuak ere sartzen joan da. Baina, liburu horiek zabaltzeko eta irakurri ahal izan daitezen giroa sortzeko orduan indar gutxi egiten ikusten dugu edo bat ere ez. Hitz batean esanda, euskarazko goi-mailako irakaskuntza eta ikerkuntza darien argitalpenei ez diete laguntzen EHUren aldetik eragiten diren politika kulturalak. Eginkizun horretan jarduteko lan-taldeko dinamikarik sortzen ez dugu inoiz erreparatu.

UEUK, irabazi-asmorik gabeko elkarte izanik, hasiera-hasieratik egin zuen euskarazko goi-mailako irakaskuntzaren alorrean argitaletxe komertzialek zeramaten irabazizko helburuetan bakar-bakarrik oinarritutako dinamikarekin

hausteko apustua, unibertsitate eta zientzia alorreko liburugintza abian jarriz. Eta hori guztia aski zama ez bazitzaion, 1990ean, **UZTARO giza eta gizarte-zientzien** aldizkaria sortu zuen.

Hainbat eta hainbat pertsonaren urririko eskaintzei esker eraikia da, bada, UEU antolamenduaren inguruan gauzatzen joan den irakaskuntza eta ikerketa saio oro. Euskal goi-mailako irakaskuntza eta ikerkuntza garatzeko egindako eskaintza eskuzabalen ekarpena nabarmendu behar dugu, noski. Hori zen, bestalde, laguntza ematen zutenen gogoia eta nahia. Gaur **UZTARO** aldizkariaren 50. zenbakia dela eta, festa egin nahi izan badugu, UEUko kideok egiten ari garenaz gogoeta egiteko, baita aldi berean etorkizunean UEUri tokatuko zaion betebeharra azpimarratzeko, eta partaidetzan protagonismo nabarmen txoago bat izan dutenei aurrerantzean ere jarraitzeko pizgarri bezala errekonozimendu publiko bat zuzentzeko okasioa ikusi dugulako izan da. Ez dugu ahantziko ere erakundeek eta beste aktore sozial batzuek euskal goi-mailako irakaskuntzan eta ikerkuntzan kalitatea lortzeko langintzan izan beharko luketen jokabidea zer litzatekeen une honetan gogorarazteko okasio egokia ere denik. Izan ere, gaur egun, Euskal Herriko unibertsitateetara goi-mailako irakaskuntza eta ikerkuntza euskaraz egitera ailegatzaren direnak inolako goi-mailako eskola formal batetik igaro gabe heltzen baitira “irakasle eta ikertzaile” postuetara. Hutsune hori, gehienera, UEUK aktore horiei emandako formazioak eta praktikak egiteko aukerak betetzen du. Praktikak egiteko aukera hori, UEUren irakasle bezala kurtsoetan programatuz eta, **UZTARO** bezalako aldizkarian eta UEUko argitaletxean beren lanak argitaratuz betetzea beste biderik ia-ia ez baitzaie gelditzen. Baina bizi dugun egoera hau guztia duela hogeita bost urte justifika bazitekeen, gaur egun, ordea, ezin onartuzkoa da. Heldua da orena, Euskal Herriko erakunde publikoek, inbertsio publikoak medio, behingoz bete dezaten euskaraz lan egingo duten goi-mailako irakasleak eta ikertzaileak prestatuko dituen **Goi Irakasle-Ikertzaileen Ikasgu Praktiko** bat sortzeko eginbeharrarekin. Ea behingoz autodidaktismoarekin amaitzen dugun hain garrantziko den gaian! UEUren altxorra eta esperientzia parte izan beharko lirateke eginkizun horretan, noski. Ez daukagu soberakinik dauzkagun pixkak galtzen uzteko. Kalitatezko gizarte bat nahi badugu kalitatezko formazio bat jasoko duten irakasle eta ikertzaileak prestatzetik hasi behar gara. Hori ez bada betetzen beti erdipurdi ibiliko gara. Aurrerapen gabeko irakaskuntza eta ikerketa jardunetan murgilduko gara. Aterabide gabeetan.

Gisa honetan gauzak planteaturik baimenduko didazue, azkenik, **UZTARO** aldizkarian zuzeneko protagonismoa izan dutenak gogora ekartzen saiatzera pasa nadin. Hasteko eta behin azpimarra dezadan **TALDE LANA** izan dela. Baldin eta norbait ahazten badut nire gogoaren kontra gertatzen dela ere argi gera dadila, eta eskertuko nioke horrelakoari gero niri horren berri eman diezadan txosten honen definitiboan sartzeko.

Hasteko bada hogeita hamabi urte hauetan noizbait UEUko kide eta zuzendari izan zareten guztioi, zorionak. Bigarrenik, **UZTARO**On zuen lanak argitaratzea erabaki duzuen guztioi, zorionak. Hirugarrenik, **UZTARO** aldizkariaren harpidedun noizbait izan zareten edo gaur oraino zareten eta berdin erosle soil zareten guztioi, zorionak. Laugarrenik, **UZTARO**ri diru-laguntza sinbolikoak bederen eskaini dizkieten Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, BBKri

eta Kutxari, eskerrik asko. *UZTARO* aldizkariaren hurbileko partaidetzara etorriaz, hamalau urte hauetan **giza eta gizarte-zientzietan** sailburu izan zaretenoi, zorionak. Izan ere, *UZTARO*n argitaratu izan den artikulu anitz zuen eskuetatik sartu izan baita Erredakzio Kontseilura. Azken honetan partaide izan diren edo diren kideei, zorionak. Gainera, aipatu egingo ditut euren izenak: Mikel Zurbano, Mikel Aizpuru, Iñaki Gaminde, Mikel Haranburu, Jesus Mari Zalakain, Maria Karmen Menika, Iban Zaldua, Nekane Balluerka, Gidor Bilbao, Nekane Intxaurtza, Ruben Iglesias eta Pruden Gartzia, alegia. Berdin zorionduko ditut hizkuntz orrazketan aritu diren guztiak: Alfontso Mujika, Izaro Gurrutxaga, Miryan Uribe-Etxebarria, Arantza Bilbao eta Ander Altuna. Gidor Bilbaok artikuluen euskara zuzentzaile bezala eta Jose Ramon Etxebarriak euskara zuzentzaile-ikastaroak antolatuz, azken urteetan eman diguten laguntza ere modu berezian zoriondu nahi nituzke. Era berean, maketazio lanetan jardun duten Agurtzane Uriarte, Mari Karmen Menika eta Nekane Intxaurtzari ere, zorionak. Azalen diseinuan jardun diren Julio Pardo eta Iñigo Ordozgoitiri, zorionak. Eta amaitzeko, beren lana ordainduta izan bada ere, gurekin inprimatzaile edo zabaltzaile bezala partaide izan direnak eskertuko ditut.

Eskerrak, e-mail bidez, gutunez edo hona fisiko present egonez laguntza eskaintzera etorri zareten guztioi.

Festa on hemen bilduta zaudeten guztioi. Animo eta euskararen etorkizuna literatura unibertsitario eta zientifikoa landuz defenditzera indarberriturik atera gaitzela *UZTARO* 50. zenbakiaren kariaz”.

“Elhuyar anaiak, wolframioaren isolamendua eta espainiar koroarekin zituzten harreman sekretuak” lanak, wolframioaren gertakizun horren atzean espioitza militarrek egon behar zuela frogatzeko asmoz, 1983ko uztailan, Kubako Habanan Batzar Zientifiko baten kariatara, autoreak aurkeztu eta publikatutakoa azaltzen du. Egia esan, wolframioaren aurkikuntzaz eta hori inguratzen duten gertaera guztiez, jarrera kontrajarriek ezaugarritzen duten ekoizpen biografiko ugaria dago. Menendez Pelayo eta Julio Urkijoren jarrera desberdinak gogorarazi ostean, autoreak hauxe diosku: “nire saiakera azterketarako beste metodo bat irekitzera bideratzen da: gertakizuna erreskatatzera. Berreraikitza, bere arkeologia burutzera”. Horrela, planteaturik, hasieran, Fausto bakarrik hartzen zela kontuan, dio. Joan Joxek Suediara egin zuen bidaia isilarazi nahi izan da. Gerora, ordea, aurkikuntzaren meritua Joan Joxerengana bideratu zen. Ondotik, prozedurari buruzko oharrek egiten ditu. Aukera hori Bergman-ek aipatua zuela, bi urte lehenago. Erabilitako metodo praktikoa, Hjelm-ek molibdenorako erabilitakoaren oso antzekoa zela. Gertakizuna burutu zen Bergarako Erret Mintegiko “Laboratorium Chemicum” deiturikoan Don Fausto de Elhuyar teknikari iaioa eta ondo prestatua zegoela zuzendari. Gertakizunaren genealogiara igarota, RSBAPri buruz agertzen joan diren kontraesanek zalantzan jarri dute erakunde horren eta Koroaren artean zegoen ageriko elkarren arteko independentzia. Gogora, bestela, Karlos III.a erregeak Erret Akademiaren gradura igo zuela Baskongada Elkarte, eta horrekin Ofizio Santuaren pertsekuziotik kanpo utzi zuela. Felipe II.aren ondotik, atzerritarrek, metropolian irakasleak izateko eta lan egiteko baimen berezia behar zutenean, RSBAPk baimen horiek lortu zituen. Horren truke RSBAPk Koroaren aldeko jarrerak izan zituen Euskal Herriko Foruen aurkako erabaki garbietan. Hala nola

barneko aduanak itsasaldera eramatea Koroak planteatu zuenean. Elhuyar anaien kasuan, badirudi gauza bera izan zela wolframioa lortzen lagundu ziena. Ondorioetara ailegaturik hauxe diosku: “personalismo zientifikotik ihesi, deskriptibismo kontestualaren araberrako datu guztiak erabiltzen saiatu naiz”. Korrelazio zehatzak bilatzeak diskurtso zientifikoaren praktika politikoa erreferentzializatzea ahalbidetuko digu. Horrek, berriz, zientzien historia oro hartzailea birplanteatzera garamatza. Azken finean, posibilitatearen analisisa finkatu beharra agertzen da.

“Zuzenbide penalaren bilakaera historiko-doktrinala: Hamurabiren kodetik Hugo Grotius-en teoriara” lanean, gizakiak gizartearen sorreratik ezagutzen duen kriminalitatearen fenomenoaren ordenamendu juridiko penalean nola aldatzen joan den agertzen zaigu. Ez dira, ordea, legegintza penalaren historia eta ideia penalaren historia nahastu behar. Lehen neurri penalak Babiloniako Hamurabi erregearen kodean daude idatziz jasota. Kodea zorrotza zen, eta heriotza-zigorra aurreikusten zen hainbat delituentzat. Era berean talioaren legea aplikatzen zuten. Ondotik, banan-banan, Kaldeakoa, Persiakoa, Hebreoa, Egiptokoa, Ekialde Urruneko (India, Txina), azteka eta inkena eta Greziakoa aipatzen dira. Erromatarren zuzenbide penalera ailegatzean berrikuntza nabarmenak aurkitzen dira. Delitu publikoak (*crimina*) eta pribatuak (*delecta*) bereizten zituzten. Hala ere, Erroma sortu zen garaian, zigorrak sakratua izaten jarraitu zuten. Errepublikaren garaian, Estatuak eta kultura elkarrengandik banatzearen ondorioz zigor penalak barkamenerako zirelako ideia ahuldu egin zen. Garai klasikoan, erromatar zuzenbide penalak aldatu egin zuten bere egitura, batik bat mendeku pribatua debekatzen zuten legeen ondorioz. *Iniuria* delitu pribatuaren arlotik publikora eraman zen. Gainera, jurisprudentziaren gain, juriskontsultuen lana azpimarratu behar da. Zuzenbide postklasikoan kopilazio justiniarra aipatu behar da. *Funtumari* dagokionez, ebasketa-kasuak kuadro sistematiko batean biltzen dira. Germaniar zuzenbide penalari begiratzen badiogu bi instituzio nagusi aurkitzen ditugu: odolaren mendekuarena eta bakea galtzearena. Azken hori zigortuari babes soziala kentzean zetzan. Estatuak bere interesen aurka zihoazen ekintzak bakarrik zigortzen zituen, horrela norbanako bat edo familia bat kalteturik aurkitzen zeneko *faida* izeneko egoerari muga jarritz. Arabiar zuzenbide penala Koranaren sorrerarekin talioa eta odolaren mendekua bezalakoetan arindu egin zen. Koranak, gainera, akordiora iristeko aukera ematen zuten, talioaren aplikazioa ekiditeko. Harrera aurreko hispaniar zuzenbide penala agertzen da, *Lex Romana Visigothorum*, *Liber Judiciorum*, Lurraldeko eta tokian tokiko foruak, eta Alfontso X.a Jakintsuaren Erret forua banan-banan aztertuz. Aipatzen dira ere, zuzenbide penal kanonikoa, zuzenbide penal komuna, XVI. mendeko Espainiako Erresumetako humanismoa, finean Hugo Grotius-en zuzenbide naturalaren teoriara heltzeko.

UZTARO 51.ean sei artikulu dakartzagu. “Inarra txarragaz, baztarrak lohi: internazionalizatu gabeko produktu informatikoak lokalizatzearen arazoak” lanean, produktu informatikoak tokian tokiko hizkuntzaren eta kulturaren ezaugarri eta premietara egokitzeak dakartzen arazoak aipatzen zaizkigu. Hasteko produktuaren internazionalizazio egokia egitea da beharrezkoa. Produktuaren konfigurazioak generikoa izan behar duela esaten zaigu, hots, hizkuntza orotarik independentea. Internazionalizazioaren oinarria, beraz, hasiera-hasieratik balizko bezero guztien premiak kontuan hartzea da. Bigarren terminoa lokalizazioa da. Informatika produktuen ikuspegitik adierazita, hau eskatzen du: karaktere baten itzulpena, data-

ren formatua egokitzea, testu kutxen zabalera moldatzea, irudiak behar den tokian jartzea edo toki bakoitzerako egokiak diren irudiak edo koloreak hautatzea. Baina, gogoratzen zaigu produktuen lokalizazioa egin ahal izateko, ezinbestekoa dela aurretik produktuak internazionalizatzea. Izan ere, internazionalizazio okerrak hainbat buruhauste ekarriko baitzizkio itzultzaileari: itzultzaileak bere lanaren %10 jatorrizko testuan ulertzen ez dituen gauzak argitzen ematen du; itzultzaileak dituen arazoan eta egin behar dituen kontsulten %80 terminologiaren kontraesanek edo zehaztasun faltak eragiten dituzte. Gehienbat, hiru akatsek sortzen dizkiote amaigabeko arazoak itzultzaileari: itzulgai diren testuak argitaratzeko erak; sorburutzat erabilitako hizkuntzaren kalitate eskasak eta interfazearen diseinuari lotutako akatsek. Ondorioak hauexek dira: Globalizazioaren sasoi honetan, eta gu-rea bezalako gizarte elebidunean, guztiz onartezina da produktu informatikoak diseinatzen dituzten enpresak internazionalizazioaren eta lokalizazioaren eska-kizunetatik at bizitzea. Tamalgarria da informatika produktuak sortzeko antolatzen diren lehiaketa publikoetan oso gutxitan eskatzea lehiatzaileei internazionaliza-zioan eta lokalizazioan esperientzia edo prestakuntza izatea. Itzultzaileak hiru gauza egiteko prest egon behar du: lehenik, erabakimena duten agintarien belarrietatik hurbil gai honen gaineko aipamen egokiak egiteko; bigarrenik, lan duinerako gutxieneko baldintzak eskatzeari irmo eusteko, eta, hirugarrenik, bere buruarekin zorrotza eta exigentea izateko.

“Irrati modernoaren testuinguru teknologizatua” lana, gizabanakoari, sarean murgiltzen denean, aurrerapen digitalizatzaileen ondorioz zabaltzen zaizkion hiru aukera aipatuz hasten da: nabigatzaile, hartzaile edo igorle izatearenak, alegia. Soziologoek talde edo komunitate birtualen esparru berria aipatzen digute. Globa-lizazioak dakarren botere berria, berriz, hiru gune konkretutan kokatzen da: merka-tuan, enpresan eta kapitalean. Hala ere, esaten zaigu, gaur egungo baliorik segu-ruena eta ekonomia guztia mugitzen duen gakoa jakintza dela. Teknologizazioaren kontestu sozial berrian ondoko faktore hauek aurkitzen ditugu: ikara eta ezinego-na; “beste mundu bat posible dela” dioen globalizazioaren aurkako mugimendua; immigrazioaren eragina; produktuen aniztasuna eta kalitatea handitzeko lehia; ingurumenaren gaineko kezka; eta abar. Teknologizazioaren eraginez gizabana-koaren individualizatorako aukerak ugartzen doaz, tresnak, gehienbat, bakarka-koak direlako. Irrati-entzulearen rola ere aldatu egin da. Gaur egun, ezagutza jakin batzuk barneratu ondoren edonor da gai telefono mugikor batetik mezu bat bidaltzeko edo Interneteko foro batean parte hartzeko. Internetek, medio guztiak batzen ditu, eta hori egiteko lain delako ikusleak, entzuleak eta irakurleak subjektu multimedia batean batzen ditu. Zer da orduan Internet? *Mass-media* tradiziona-lekin amaituko duen tresna erraldoi bat? ala komunikabide tradizionalen eraberri-tzean horiek erabiliko duten bitarteko teknologiko aproposa, globalizatua eta demokratikoa? Entzuleari eskaintzen dion aukera garrantzitsuena interaktuatzeko aukera da. Hori horrela izanik, irriatiak daukan erronka hau da: mezu interesgarriak egitea eta produktu berriak saltzeko era erakargarriak, baliagarriak ezaguterrazak, gogoratzeko errazak eta funtzionalak sortzea. Ondorioz, garbi dago irratia tes-tuinguru berri batean murgilduta dagoela. *Mass-medi*en etorkizuna tresna digital berrien erabilerak margotuko du. Irratiak bere historian bizi duen bigarren mol-daketa funtsezkoaren aurrean gaude. Bestalde, subjektua ez dute kontsumitzen dituen komunikabideek bakarrik baldintzatzen. Orain bitartekoak berak ere

baldintzatzen du.

“Basho-ren basora bazoaz... (*renkuaz* eta *haikuaz*)” lanak *renkua*, olerti lotuaren fōma japoniarra, eta renkutik eratorritako *haikua* aurkeztu eta aztertzen ditu. Renkua olerkari-talde batek txandaka idazten du. Hala bata nola bestek berbaldi txepel eta moldakaitzak kolorez eta bizitasunez janzteko dohaina daukate. Renkuari dagokionez 5-7-5 silabako lerro-hirukotearen ondoren (*hokku*), 7-7ko bikotea (*wakku*) dator. Garrantzitsuena poemak garapen irmoa ukaitea da. Renku bateko bertso bakoitzak, lehenak eta azkenak izan ezik, oihartzuna eman behar dio aurrekoari eta hurrengoari, kasu bietan aparteko 5 lerroko poema sortuz. Oro har, renkuaren bertso-erdiak urteko sasoiarekin zerikusia duen zerbait aipatuko dute, eta poema osoan lau urte-sasoiak agertu behar dira. Renkuak ez du gai finkorik, axola duena gaien garapena izanik. Renkua bukatu eta gero, beste partaide batek behin betiko bertsoia idatziko du eta partaide guztiei bidaliko die, opari gisa-edo. Artikuluaren egileak euskal *renkua* proposatzen digu hizkuntza bat ikasteko edota hedatzeko erabilgarria izan daitekeelakoan. Haikua, berriz, renkuarengandik bananduriko olerki-mota dugu, bere buruaren jabe bihurtu den hokkuaren itxurakoa. Basho-k hainbat arau eta printzipio ezarri zizkion. Hasieran, izadia eta gizakia izango dira haikuen gai nagusiak. 50 eta 60ko hamarkadetako kultura alternatiboak gizarte kontsumitzaile eta materialistari bizkarra eman nahi izan zionean, zenbait, inspirazio ederra aurkitu zuen haikuetan. Euskal esparruan ere haikuen ildoan murgildu diren olerkari batzuk ditugu, adibidez, Jose Felix Azkona Garziaren *Artius* (1996) lanaren aurreneko atala, “Asunaren desirak”, haikuen lerro-kopuru bera duten hiru olerki-sailez osatzen da. Juan Kruz Igerabidek, bere aldetik, erabat “haikuz” osatutako olerki-liburua argitaratu du. Renkuaz eta haikuaz solasean jarrita, Debra Kang Dean-ek, 1999ko urtarrileko saiakeran, eremu berriak arakatu nahi izan zituen. Bere olerkiak sasoiaren zikloari jarraitzen dio, renkuak modu estilizatuago batean egiten duen bezala. Makoto Ueda adituak *hototogisu* kukuaren japoniar izen onomatopeikoa darabil. Itzulpen hau jatorrizkoaren sintaxiari datxekio estu-estu, eta beste bertsoaren aldean desberdintasun interesgarriak eskaintzen dizkigu.

“Lana eta osasun mentala: generoaren ikuspegitik aztertutako etxeko lanen eta langintzaren estresa” lanak, bereziki, emakumezkoen artean ohikoa den etxeko eta lantokiko aldi bereko zereginak eragindako estresa aztertzen du. Gaur egun, emakumezkoek rol femenino nahiz maskulinoetan dihardute; gizonezkoak, ordea, urrun daude rol femenino tradizionaletatik. Adierazten zaigu ere, “gure iritziz, pertsona bakoitzaren bizi-zikloaren alorrean gertatutako trantsizio psikosozialak izango lirateke gizabanakoa egoera berri batera eramango luketen aurreikusitako eta aurreikusi gabeko gertaerak (bizitzako gertakizunak)”. Trantsizio horiek guztiek orokorrean izaten dute izendatzaile komuna: egoera berri batek dakarren ziurgabetasuna (zorigaitzak, zalantzak, ahaleginak, nekeak, sufrimenduak, hersturak, dilemak eta abar). Garrantzizkoa da, orduan, prozesu psikosozialak (identitatea, irudipenak eta kognizioak) egoera berriarekin batera aztertzea zeren ziurgabetasunaren tratamenduaren inguruan hasten baitira birdefinitzen eta berpizten. Horrela, ziurgabetasun-egoera testuinguruko faktoreek eta harreman-prozesuek eragina gertatzen da. Literaturan argi dago emakumezkoen amatasunak eta lana uzteak trantsizio psikosoziala dakarkietela. Langintzan diharduten emakumezkoek, gizonezkoek ez bezala, etxeko lanen eta langintzaren arteko

bateraezintasunaren dilemari aurre egin beharko diote etxeko esparruan izandako paper sozialaren eraginez. Ikasketa-maila baxua, genero-ideologia tradizionala eta zaindu beharreko haurren kopurua erlazionatzen dira garapen profesionalari ematen zaion lehentasun eskasarekin. Horrela, emakumezkoen %92,7k egunero batez beste bost ordu ematen dizkie familiaren zainketari eta etxeko lanei; aldiz, gizonezkoen %70,1ek egunero, batez beste, bi ordu. Bestalde, estresaren ikuspegi epidemiologikoak elementu estresagarriek gizabanakoengan eragindako gaixotasuna baino ez du aintzat hartu, klase sozial eta genero aldagaiak ikerlanetatik kanpo utziz. Bere aldetik, estrukturalismoak langintzaren estres-maila makroteorikoa aztertzen du. Ikuspegi psikosozialek generoa eta estresa elkarturik ikertu izan dituzte. Generoaren ikuspegitik abiatutako trantsizio psikosozialei buruzko ikerketa psikosozialak gutxiago dira. Argi dago, hala ere, aldaketa makroekonomikoez mikro mailako aldaketa anitz dakartzatela. Baina behin ere ez dugu aiantzi behar unibertso diadikoan boterearen asimetriarekin aurkitzeaz gain, elementu afektibo eta emozionalekin aurkitzen garela. Horrela, genero-indarkeriaren, hots, emakumearen aurkako indarkeriaren atzean bikotean gizonezkoek boterea galtzeko egiten duten erresistentzia erreala agertuko litzateke eta ez litzateke bakarrik adierazle sinboliko bat. Emakumezkoa langintzan zenbat eta gehiago sartu, orduan eta aldaketa gehiago izaten da bikotearen harreman-munduan. Ondorioz, hiru ardatz nagusi hartu behar dira kontuan: lehenik, generorolaren garrantzia; bigarrenik, familiari eta lanari emandako denboraren proportzioa eta, hirugarrenik, babes soziala (hala emozionala nola materiala). Oraindainoko ikerketetan hutsegite nabarmen anitz izan da. Etorkizuneko ikerketek kontuan izan beharko dute jendetzaren testuinguru sozioekonomikoa (makroa bezala mikroa), eta bereziki sakondu beharko da diadaren unibertsoan (mikro mailako analisia, alegia).